

WEB GUNEA



NAGORE, GARAZI, EMMA ETA
OIHANE



BABY'S SITE

'ZURE LASAITASUNA, HAIEN DIBERTSIOA'

Lehenik eta behin, edukien ekoizpena eta garapena da gure jarduera nagusietako bat. Horren barruan, gurasoentzako formakuntzak diseinatzea eta sortzea (online zein presentzialak), eduki pedagogikoak prestatzea (artikuluak, gidak, tailerrak, galdetegiak eta deskargatzeko plantillak) eta eduki horiek haurren garapenari eta gurasoen beharrei egokitzea sartzen dira. Jarduera hau ezin da kanpora utzi, enpresaren know-how-arekin eta balio-proposamenarekin zuzenean lotuta dagoelako.

Bigarrenik, arazoak konpontzea eta aholkularitza funtsezko jarduera da. Gurasoek dituzten zalantzak, kezak eta gatazkak identifikatzea, horiei erantzun egokiak ematea eta egokitzapen-prozesuan laguntza eskaintzea da helburua. Jarduera honek proiektuaren balio nagusia indartzen du, gurasoei segurtasuna eta konfiantza emanez; beraz, ezin da kanpoan utzi.

Hirugarrenik, plataforma digitalaren kudeaketa eta sareko jarduerak ezinbestekoak dira. Horien artean, webgunearen eta formakuntza-plataformaren funtzionamendua, foroen moderazioa, erabiltzaileekin komunikazioa eta komunitatearen dinamizazioa daude. Alderdi tekniko batzuk (adibidez, web-garapen teknikoa edo mantentze-lanak) kanpoko enpresen esku utz daitezke, baina edukien kudeaketa eta komunitatearekiko harremana enpresaren barnean mantendu behar dira.

Azkenik, kalitatearen ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza jarduera estrategikoa da. Formakuntzen eragina neurtzea, gurasoen iritziak jasotzea eta edukiak etengabe eguneratzea funtsezkoa da balio-proposamena mantentzeko eta hobetzeko.

Lehentasunen ordena honakoa da:

- Edukien eta formakuntzen diseinu eta ekoizpena, balio-proposamenaren oinarria.
- Gurasoekin aholkularitza eta arazoen konponketa zuzena.
- Plataforma eta komunitate digitalaren kudeaketa.
- Ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza.

Erreferentzia bibliografikoak

- *STARTInnova*. (s.f.).

https://araba.startinnova.com/curso/bloque_1/test_1.php?idioma=eu

- TuLibrodeFP,SLU. (s.f.). *IPE II 2025*.

<https://libreria.tulibrodefp.es/inicio/287-ipe-ii-2025.html>

- *Logomaker gratis. Crea el logotipo de tu empresa desde la web | VistaPrint*.

(s. f.-b).

https://www.vistaprint.es/logomaker?utm_id=3BPS04AC524F36CF764D40&coupon%20=&partner=google&ps_vtp=21091221528|||c|9190882||x&ps_vtp2=g||||||&gad%20source=1&gad_campaignid=21091223487&gbraid=0AAA AACUDNVvDLVJDOh9r%20UMIBezWxSNSH&gclid=CjoKCQiAxonKBhC1ARIsAIHq_luEQiQA-GdcT5N_6_yI%20Fjfbm28DBls3LUf8doPTonB-WprjvFSo0aArs1EALw_wcB